

### Laborategiko 3. saiorako ariketak

Aukera itzazu bi ariketa. Hurrengo saio praktikorako espezifikazioa eta algoritmoa egin. Ondoko laborategi-saioan inplementatu beharko dituzu:

1. Puntu karaktereaz amaitzen den karaktere-sekuentzia bat emanda karaktere guztiak zuriuneak kenduta idatziko dituen algoritmoa espezifikatu eta egin. Adibidez  
Sarrera: *Komando honek lehen sortutako direktoriora eramaten gaitu.*  
Irteera: *Komandohoneklehensortutakodirektorioraeramategaitu.*  
Sarrera: .  
Irteera: .
2. Puntuz bukatzen den karaktere-sekuentzia,  $L$ uzera osokoa eta  $P$  osokoa emanda, sekuentziako  $P$ . posiziotik aurrera  $L$ uzera karaktere idatziko dituen algoritmoa espezifikatu eta egin. Adibidez:  
Sarrera: Luzera:8;  
Pos: 5;  
Sekuentzia: *Komando honek lehen sortutako direktoriora eramaten gaitu.*  
Irteera: *ndo hone*
3. Zeraz amaitzen den zenbaki osozko sekuentzia ordenatua (handienetik txikienera) eta  $x$  osokoa emanda,  **$x$  baino txikiago edo berdina den balio maximoa** emango duen algoritmoa espezifikatu eta egin.  
**Oharra:** Sekuentzian zenbakiak errepikatuta ager daitezke.
4. Zeraz amaitzen den osoko-sekuentzia bat emanda, zenbaki horiek aztertuta honako mezu hauetako bat idatziko duen algoritmoa espezifikatu eta egin:
  - *Zenbaki guztiak bikoitiak dira*
  - *Zenbaki guztiak ez dira bikoitiak*